



SUKAR-KONBULTSIOA CONVULSION FEBRIL

Zure seme-alabak orain dauzkan sintomak direla-eta, hauxe da diagnostikoa: **SUKAR-KONBULTSIOA**.

ZER DA SUKAR-KONBULTSIOA?

Burmuinaren erantzun bat da, sukarrak sortua. Sukar hau normalean garrantzirik ez daukaten infekzio arruntek sortzen dute (arnasketakoak, otitisa, amigdalitisa, gastroenteritisa). Batez ere, 6 hilabetetik 5 urtera bitarteko umeei eragiten die. Itxuraz larria eman arren, sukar-konbultsioak oso pronostiko ona dauka.

NOLA IGARRI?

Sukarraren eraginez bero dagoen umeak konortea galtzen du bat-batean eta besoak eta hankak astintzen hasten da, edo batzuetan zurrun jartzen zaio gorputz osoa; segundo batzuk edo minutuak irauten du horrek. Desbideratuta edukitzen du begirada eta ezpainak ubelduta egon daitezke. Gero, lo sakonean geratzen da minutu batzuetan.

ZER EGIN KONBULTSIOA BERRIZ GERTATZEN BADA?

Jakin behar duzu zure seme-alabak sukar-konbultsio bat baino gehiago eduki ahal duela, baina horrek ez duela esan nahi epileptikoa denik. Zure familian antzeko kasuak izan badira, sarriago gertatuko zaio. Hauxe da egin beharrekoa:

1. Aho barruan zerbait badauka, atera egin behar zaio. Ez da ezer sartu behar ahoa zabalik edukitzeko, mihiari haginka egitea ez delako ohikoa.
2. Umea albo batera etzanda jarriko dugu, toki erosoan. Horrela, batetik, umeak ez du minik hartuko konbultsioak hasten direnean eta, bestetik, botaka egiten badu ez du irentsiko.
3. Konbultsioa desagertzen bada eta umea erdi lo gelditzen bada, hobe da zu bizkortzen edo esnatzen ez saiatzea; loa mekanismo fisiologiko beharrezkoa da umea bere onera itortzeko.

Konbultsioa minutu gutxitan desagertzen bada eta umea bere onera guztiz badator minutu gutxitan, ez da beti beharrezkoa pediatra batek berehala azterketa egitea. Zuk uste baduzu dena ez doala ondo, edo arrazoiren bategatik kezkatuta bazaude, egin kontsulta zeure pediatrari edo jo ezazu berriro Larrialdietako Zerbitzura.

Konbultsioa desagertzen ez bada, zure seme-alabak arreta jaso behar du; beraz, Larrialdietako Zerbitzura deitu beharko duzu.

ZER EGIN SEME-ALABAK SUKARRA DAUKANEAN?

Egizu betiko moduan, umeak sukarra eduki duenean egiten duzun legez. Beti izaten da komenigarria tenperatura jaisten saiatzea. Neurri hau ez da nahikoa krisi berriak baztertzeko, baina sukarra arintzean erosoago sentituko da umea. Erabil ezazu pediatrak beste batzuetan gomendatu dizuna. Antitermikoa, ahal dela, ahotik emango zaio, baina konbultsioa gertatzen ari zaion bitartean ipurditik egingo da.

Su hijo ha sido diagnosticado de **CONVULSION FEBRIL**, por los síntomas que presenta en estos momentos.

¿QUE ES LA CONVULSION FEBRIL?

Es una respuesta del cerebro provocada por la fiebre. Esta fiebre suele ser causada por infecciones comunes (respiratorias, otitis, amigdalitis, gastroenteritis), generalmente sin importancia. Afecta especialmente a niños de 6 meses a 5 años de edad. A pesar de lo aparatoso que parece, la convulsión febril tiene muy buen pronóstico.

¿COMO RECONOCERLA?

El niño, que se encuentra caliente por la fiebre, pierde bruscamente la conciencia y comienza con sacudidas de los brazos y las piernas, o a veces con rigidez de todo el cuerpo, que suele durar varios segundos o minutos. Suele tener la mirada desviada y los labios pueden estar morados. Después queda con sueño profundo durante minutos.

¿QUE HACER SI LA CONVULSION SE REPITE ?

Usted debe saber que su hijo puede padecer más de una convulsión febril, sin que ello quiera decir que sea epiléptico. Esto es más frecuente si en su familia ha habido casos similares.

1. Sacar objetos de la boca. No es necesario meter nada para mantener la boca abierta puesto que la mordedura de lengua es excepcional.
2. Colocar al niño sobre una superficie confortable, y tumbado sobre un costado. De esta manera evitaremos por un lado que se lastime al comenzar las sacudidas y, por otro, que pueda tragar un posible vómito.
3. Si cede la convulsión y el niño queda adormilado es mejor que usted no intente estimularle o despertarle; el sueño es un mecanismo fisiológico necesario para que el niño se recupere.

Si la convulsión cede en pocos minutos y el niño se recupera completamente en pocos minutos, no siempre es necesaria la valoración inmediata por un pediatra. Si usted piensa que las cosas no van bien, o si usted está preocupado por algún motivo, consulte a su pediatra o acuda de nuevo al servicio de Urgencias.

Si la convulsión no cede, su hijo debe ser atendido por lo que deberá llamar al Servicio de Emergencias.

¿ QUE HACER CUÁNDO MI HIJO TENGA FIEBRE?

Usted debe actuar igual que en otras ocasiones que el niño haya tenido fiebre. Es conveniente intentar bajar la temperatura. A pesar de que esta medida no es suficiente para evitar nuevas crisis, aliviar la fiebre proporcionará confort al niño. Puede utilizar lo mismo que ha recomendado su pediatra en otras ocasiones. La administración de antitérmico será, preferentemente, por vía oral, salvo durante la convulsión, en que se administrará por vía rectal